

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Jarduera Ekonomikoen gaineko 2016ko Zergaren diru bilketa

Nik, Afro Olabe Martinez de Albeniz jaunak, Barrundiako Udaleko alkateak, ondokoa

JAKINARAZTEN DUT:

2016ko urriaren 5etik aurrera ordaindu ahal izango direla araututako epean 2016ko ondoko zergak:

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

I. ORDAINTZEKO EPEA

A) Borondatezko epea: 2016ko urriaren 5etik 2016ko abenduaren 5era arte.

B) Betearazte aldia: 2016ko abenduaren 6tik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarquak, premiamendu murriztukoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta badute. Udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa banku bidez helbideratuta ez daukatenek udalak kutxabanken eta Laboral Kutxan dituen edozein kontutan dirua sartuta egingo dute ordainketa.

III. GOMENDIOAK

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Barrundiako Udalarari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Ozaeta, 2016ko irailaren 26

Alkatea

AFRO OLABE MARTINEZ DE ALBENIZ